

ELGERA

IRINA GARITA ONAINDIA

“ILUSIOZ, ZORTE PIXKA
BATEKIN ETA GOGOR LAN
EGINEZ HELBURUAK LOR
DAITEZKE”





4 Ballet klasikoa

- 3** Bilboko Euskaingintza
- 4** Elkarrizketa
- 6** Inkesta
- 7** Jarduerak
- 8** Erreportajea
- 10** Erreportajea
- 12** Erreportajea
- 14** Ikus-entzunezkoak
- 15** Bitxikeriak
- 16** Jarduerak
- 17** Errezeta



8 Galgo Leku Elkartea

aurkibidea

ELGERA 16. ZK apirila

- 18** Elkarrizketa
- 20** Teknologia Berriak
- 22** Erreportajea
- 23** Bertsolaritza

16 Adostokia



18 Lanbide feminizatuetan mutilak plazara



22 Pentsa ezazu kanpaina

Argitaratzailea: ELGERA LANTALDEA: Rekaldeberriko BHI, San Adrian BHI, Eskurtze BHI, Unamuno BHI, Botikazar BHI, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, La Salle Bilbao HLBIP, San Inazio BHI, Ellacuria-Zurbaran BHI eta B01eko Hizkuntza Normal-kuntzako Ulibarri Programa, CIFP Txurdinaga LHII, Ostalaritza Goi Eskola. Koordinazioa: B01eko Hizkuntza Normalkuntzako Ulibarri Programa.

Inprimategia: Antza. Ale kopurua: 3.813. Webgunea: www.elgeraldizkaria.wordpress.com



21.korrika



Zein polita izan den hilabete honetako azken egun hauetan korrikan pentsatzen oheratzea. Ez duzue uste? Hunkigarria izan da pentsatzea ere, edozein ordutan, nonbaiten zoro zoragarri batzuk euskararen alde korrika ibili direla. Euskal Herriko txoko txikienetara heldu baita korrika, gelditu gabe, beti euskararen alde.

1980. urtean, duela 39 urte dagoeneko, Oñatin hasi eta Bilbon amaitu egin zen Korrika antolatu zen, Euskal Herri osoa zeharkatu zuena. Gaur egun euskararen alde antola-

tzen den ekitaldirik jendetsuenaz ezik, garrantzitsuena ere bada.

Ia lau hamarkada, euskararen aldeko borroka bi urterik behin kalera ateratzen hasi ginenetik. Herri batek behar dituen ezaugarrien artean aurkitzen baita hizkuntza, herria egiten jarraitzeko nolabait. Euskal Herriarentzako euskara da ezaugarririk ezinbestekoenetako bat. Beraz, jarrai dezagun herria egiten daukagun gauzarik baliotsuena zainduz eta zabalduz... gora euskara!



“Ilusioz, zorte pixka batekin eta gogor lan eginez helburuak lor daitezke”

Irina Garitaonaindia, Ellacuria-Zurbaran ikastetxeko DBH 2. mailako ikaslea da, eta dantzari profesionala izateko bidean ere badago. Bere ametsa munduko ballet konpainia onenatariko batean lan egitea da, hori dela eta, arratsaldero, gogor ekiten dio balletari.

Nola konturatu zinen balleta egin nahi zenuela?

Nire gurasoek apuntatu ninduten txikia nintzenean, bost urterekin, eta lehenengo momentutik gustatu zitzaidan. Hemen hasi nintzen, Bilbon, Igor Yebraren dantza eskolan.

Zer sentitzen duzu dantzatzen duzun bitartean?

Ez dakit oso ondo nola azaldu, baina ederki sentitzen naiz. Triste nagoenean dantza-tzeak alaitu egiten nau.

Zein ikuskizun ospetsutan parte hartu duzu hasi zinenetik?

Txaikovskiren Intxaur-Hauskailuan, Igor Yebrak eta Oxana Kucheruk sortu berri duten Pipi Dantzaria deituriko ballet berrian eta bestelako ballet famatu batzuen bariazioetan, On Kixoten, Paquitan...

Zer motako paperak interpretatu dituzu orain arte? Zein gustatuko litzaizuke egitea etorkizunean?

Orain arte denetarik egin dut. Lehen aipatutako Intxaur-Hauskailuan, adibidez, Politxine-la interpretatu nuen, baina tximinoa, txinatarra edo ipotxa ere izan naiz beste batzuetan. Kortsario balleteko bariazioetan, esaterako, odaliskarena egin dut. Etorkizunean, Intxaur-

Hauskailuko Maria interpretatzea amets bat izango litzateke.

Zein lekutan dantzatu duzu orain arte?

Bilboko Arriaga Antzokian, Santurtziko Serantes Kultur Aretoan eta, noski, Euskalduna Jauregian.

Zeintzuk dira zure ballet dantzari gogokoenak?

Asko, baina gehien miresten dudana Svetlana Zajárova dantzaria da. Mariinski eta Bolshói antzoki errusiarren konpainietan lan egin du.

Etorkizunean, ballet eskola garrantzitsu batera joatea pentsatuta daukazu?

Bai, datorren urtean Madriler eta Gasteizera joango naiz. Madrilen dantza ikasketak egiteko hiru kontserbatorio daude eta Gasteizen bat. Nire asmoa sarrera probak egitea da, dantzaren ibilbidetik jarraitzeko.

Nola antolatzen dira dantza ikasketak? Azaldu ahal diguzu?

Dantza ikasketak hiru mailatan antolatzen dira: oinarrizko maila, lau urteko iraupena duena, maila profesionala, sei urtekoa, eta goi maila, azkeneko lau urteak. Nik egingo ditudan probak, maila profesionaleko bigarren mailan sartzeko dira.

Eta zer eskatzen dizute sarrera proba horietan?

Proban atal ezberdinak daude. Lehenengo atalean, dantza klasikoaren oinarrizko ariketak eskatzen dizkigute, barran egiten direnak eta erdikoak, adibidez, puntak edo piruetak. Bigarren atalean, izaera dantzak menperatu behar ditugu, hau da, Europako dantza-estilo ezberdinak ezagutu behar ditugu, esaterako, errusiarra, italiarra edo hungariarra. Hirugarren atalean, musikari buruzko oinarrizko ezaguerak neurtzen dituzte, melodiak intonatzeko eta patroir eritmikoak errepikatuzko gaitasuna, adibidez. Eta amaitzeko, dantza historiari buruzko azterketa daukagu. Atal honetan, proban emandako ballet obra ezberdinen artean bat aukeratu behar dugu eta azaldu zein garaitan eta nork sortua den,

zertan datzan antzezlanak, eta zeintzuk diren pertsonaia nagusiak.

Baduzu etorkizunerako lortu nahi duzun erronkarik?

Nire helburua dantza-konpainia batean lan egitea da eta aukera izatekotan, dudarik gabe, Londreseko Royal Balleta aukeratuko nuke, munduko dantza konpainia onenartarikoaren artean dago. Hala ere, epe luzera, ballet irakaslea izatea gustatuko litzaidake, hori dela eta, goi mailako ikasketak egin nahi ditut, irakasteko titulua behar da, ogibide gehienetan bezala.

Helburu horiek lortzeko gai izango zarela uste duzu?

Egia esan, nahiko zaila da, baina ilusioz, zorte pixka batekin eta gogor lan eginez helburuak lor daitezke.

Nola moldatzen zara institutuko ikasketak eta dantzakoak aldi berean egiteko?

Nahiko zaila da. Ikastetxeko klaseak amaitu ondoren balleta egitera joaten naiz, jarraian, eta bertan egoten naiz gaueko hamarrak arte. Afaldu ondoren, etxerako lanak egiten ditut eta berandu joaten naiz ohera, baina ez dago beste modurik.

Zeintzuk dira ikastetxeko zure irakasgai gogokoenak?

Musika, ingelesa eta plastika. Hizkuntzak ere garrantzitsuak dira atzerrira ikastera joan nahi badut.

Balleta egingo ez bazenu, zer ikasiko zenuke? Zer gustatzen zaizu dantza egiteaz gain?

Animaliak asko gustatzen zaizkit, txakur bat daukat, beraz, nik uste dut balleta egingo ez banu, albaitaria izatea gustatuko litzaidakeela.

Amaitzeko, balleta nesken kontua bakarrik dela uste duzu?

Balleta ez da nesken kontua bakarrik, mutilena ere bada, izan ere, ezinbestekoak dira balletean, eta nahiz eta kontrakoa pentsatu, askok praktikatzen dute.

Zer musika mota entzuten duzu ?



ALVARO IBAIBARRIAGA

Gaur egun musika mota asko daude, baina nik genero batzuk gehiago entzuten ditut beste batzuk baino. Perkusioa ikasten dudanez musika mota asko entzuten ditut: jazz, klasikoa, blues, bossa nova, rap, trap, latino eta musika komertziala... Gehien gustatzen zaizkidan generoak rap, trap eta jazz dira.

INES ARESTI



Txikitatik musikak hezi nau. 4 urte baino ez nituela hasi nintzen dantzatzeko, eta horrekin batera musikarekin maitemintzen. Gaur egun hainbat musika mota entzuten ditut, besteak beste, flamenko, euskal musika, pop, rock, rap, reggeton, klasikoa, hip-hop, dancehall, soul, folk, ska, reggae, etab.



BEGO HURTADO

Txikitatik musika gustukoa izan dut, asko lagundu didalako nire arazoak ahaztu edo ekiditeko. Orain gustatzen zaizkidan generoak rap eta reggae dira, bizitzaz eta gizarteari buruz hitz egiten dutelako gehienetan. Musika nire ustez, arte mi-
resgarri eta garrantzitsua da.

SELAM ORTEGA




Txikitatik musika oso garrantzitsua izan da niretzat. Musika mota ia guztiak gustoko ditut eta aldarrikatzaileak badira gehiago. Adibidez: La Polla Records edo Bob Marley. Beste leku batzuetara eramaten zaituztenak Enya eta giro ona sortzen dituztenak ere, Earth, Wind & Fire edo Salt-N-Pepa.



SARA DEL VALLE

Abesti bat gustuko izateko kontuan hartzen dut letrarekin identifikatua sentitzen naizen edo zerbaiti kritika egiten dion. Farra egitera noanean, ordez, beste musika mota bat nahiago dut, cumbia esaterako. Talderen bat gomendatu beharko banu hauek izango liratzeko: Arnau Griso, Macaco, Glaukoma eta Tremenda Jauria.

CLAUDIA MORENO



Gurasoen eraginagatik txikitik Queen, R.E.M eta The Police entzuten nituen. Kontserbatorioan ikasten eta kontzertu klasikoetara joateko pribilegioa izan dudanez, musika instrumentala oso gustoko dut. Baina nire egunerokotasunean gehienbat entzuten dudana metal, rock, ska, reggae eta punk generoak dira.

Nobela klasikoen gaineko tertulia

San Inazio BHI - Beñat Perez DBH 3.maila

Aurten ingeleseko irakasgaian jarduera berri bat eraman dugu aurrera, testu literario bati buruzko tertulia hain zuzen. Ekimen honen helburua irakurzaletasuna piztea izan da, ingeles maila hobetu dugun bitartean.

Ingeleseko irakasleak klaseko guztioi liburu bat irakurtzeko esan zigun. Liburuaren izenburua 'The picture of Dorian Gray' zen, Oscar Wilde-k idatzia. Hiru eguneko tertulia egin genuen. Ostegunero lau kapitulu irakurrita eraman behar genituen eta irakasleak liburuari buruzko galderak egiten zizkigun. Lehenengo egunean idazleari buruzko galderak aztertzen hasi ginen, gero ostegunero kapitulu bakoitzeko zortzi galdera erantzun genituen.

Tertulia egiteko, mahaiekin zirkulu batean bildu eta irakasleak arbela digitalean galderak jartzen zituen guk irakurri ahal izateko. Erantzuna banaka eman behar genuen, erantzuna zuzena izan arren akats gramatikalak bazituen,

irakasleak kolorezko fitxa bat ematen zигun eta akats gramatikalik gabe egiten bagenuen, fitxa beltz edo zuri bat, balio gehiago zutenak. Tertulietan ia denok hartu dugu parte. Klasea amaitutakoan, irakasleak fitxak zenbatu eta gehien zituen pertsonari sari bat eman zion - liburu bat-, eta besteoi, parte hartzeagatik, gozokiak.

Laugarren astean, liburuari buruzko azterketa egin genuen eta egindako tertuliei esker liburuaren istorioa hobetu eza gutu, eta horrela azterketa ere hobeto egin genuen. Proiektu honi esker, ingelesa irakurtzeko eta entzuteko gaitasuna hobetu dugu. Liburua ez zen luzea, gainera irakurtzeko eta ulertzeko erraza ere izan zen. Horrez gain, esperientzia ona izan da gelakideekin liburua komentatu eta zalantzak argitu ditugulako. Astero lau kapitulu irakurri eta klasean komentatu ditugunez, gustorago irakurri dugu. Nire ustez hizkuntza ikasgai guztietan egin beharko genuke, oso dibertigarria baita.



Galgo Leku Elkartea



Galgo Leku Elkarreak, txakur hauek maite dituen pertsona talde batek osatzen du, galgoek bizitza hobea izan behar dutela pentsatzen dutelako. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzaren elkarten erregistroan irabazi asmorik gabeko elkarte gisa agertzen dira. Hasieran, Euskal Autonomia Erkidegoan soilik lan egiten zuten arren, gaur egun beste komunitate erkidego batzuetako pertsonekin lan egiteko prest daude baita ere.

Elkartearen webgunean, elkarteari zein txakurrei laguntza emateko hainbat aukera agertzen dira: adoptatu, babesean hartu edota dirulaguntza eman besteak beste. Horrez gain, webgunean bertan ere pertsonentzako zein galgoentzako arropak saltzen dituzte. Hemen duzue: www.galgoleku.org

Aurreko abenduaren 20an Rubén, Galgo Leku Elkarteko kidea, hitzaldi bat ematera etorri zen Deustuko Ikastolara eta berarekin hitz egiteko aukera izan genuen.

Kaixo Ruben. Azaldu ahal diguzu zer egiten duzuen elkarte honetan?

Gure lana txakur hauek aurkitzea eta ahalik eta arriskuan dauden gehienak salbatzea da. Galgoa txakur arraza bat da, txarto erabili ohi den arraza bat, merkataritza eta lasterketak egiteko erabiltzen dira gehien

bat, baita ehizarako ere. Otsailean, ehiza denboraldia amaitutakoan, asko bertan behera uzten dituzte eta beste asko berriz, hil.

Nortzuk dira zurekin datozenak?

Hauek, Blues eta Bones dira, nire txakurrak eta beste hau Nose da, momentuz nirekin



dagoena, familia bat aurkitu arte. Hirurak txakur salbatuak dira.

Zein da haien historia?

Bakoitzak bere historia propioa dauka. Adibidez, Blues Valladolideko txakurtegi batean hiltzorian jaso genuen txakurra da. Dirudieenez, auto batek harrapatu zuen eta erreka batean botata egon zen hiruzpalau egunez. Atzeko hanka apurtuta zeukan. Sandrak, lankide batek, momentu oso latzak pasatu zituen Blues albaitariarenera lehenengo aldiz eraman behar izan zuenean. Sukar altua eta min handia zirela eta, txakurra ingresatu behar izan zuten. Azkenean, dena ondo atera zen eta ebakuntza batzuen ondoren etxera bueltatu zen.

Zeintzuk dira elkarte honekin parte hartzeko beste modu batzuk?

Egia da ezin ditugula txakur guztiak hartu, erantzukizun handia delako. Gainera, askotan deitzen gaituzte kasu berri bat aur-

kitu dutela abisatzeko, hau da, galgo bat galduta edo bertan behera utzita topatu dutelako. Tamalez, guk ez daukagu txakurtegirik, harrera etxeekin egiten baitugu lan. Kasu hauetan oso zaila egiten zaigu ezetz esatea, horregatik dira hain beharrezkoak harrera etxeak.

Hala ere, elkartearekin parte hartzeko hainbat modu daude: txakurrak adoptatuz edota babesean hartuz, harrera etxea bihurtuz eta baita ere, diru laguntzen bitartez. Gure webgunean denda bat ere badaukagu eta bertan kamisetak, txapak, egutegiak, katileuak, etab. saltzen ditugu.

Zer onura dakar etxean galgo bat izateak?

Aipatu behar dut guk ematen dioguna baino gehiago jasotzen dela beraiengandik, txakur lasaiak eta errazak dira, eta bizitza labur honetan esperientzia bakarra eta zoragarria da galgo bat adoptatzea; beraz, animatzen zaituztet beraien bizitzaren parte izatera.

Elkartrukeak: Unamunotik mundura

Aurten Unamuno institutuko batxilergoko lehenengo mailako ikasleok Estatu Batuetako beste ikasle batzuekin elkartruke bat egiteko aukera izan dugu. 15 egun Amerikako ekialdeko kostaldean, Marbleheaden, egon ginen hain zuzen ere.

MARBLEHEAD. USA.

Iraia Gaztelu-Iturri Aldazabal eta Jon Peláez Casado

Harrera eman zigun eskolak herriaren izena darama: Marblehead High School, eta bertako institutu publiko garrantzitsuena da, mila ikasle batzen baitira bertan. Bertan guk ez ditugun ikasgai asko aurki ditzakegu, besteak beste, sukaldaritza, gitarra edo lehen soros-

penak. Arlo hauek guztiak ikasgai "arruntak" bezain garrantzitsuak dira. Bostonera gindoazen ia egunero, hiri eta herri amerikarren arteko desberdintasuna behatzeko balio izan diguna. Salem ere izan zen helmuga sarri bat. Gure bidaiari bukaera emateko, bi egun eman genituen New Yorken, gure herririk lau ordutara zegoena. Han, bisita azkar bat antolatu ziguten. Askatasuneko Estatua, Broadway, Times Square edo Empire State Building ez ziren falta izan. Bidaiaren azken zatia amaituta, JFK aireportura abiatu ginen bueltako hegazkina hartzeko.

Hiru hilabete igaro ondoren, amerikarrak etorri ziren Bilbora. Gure taldearekin alde-ratuz, haiek hamar ikasle gehiago ziren. Gu institutuan geunden bitartean, Gaztelugatxe, Donostia, Guggenheim eta beste hainbat leku bisitatu zituzten. Egun batean berriz, denok batera joan ginen Alde Zaharrera eta Ezkerraldera, toki hauen historia eza-gutzera. Bidaian zehar kultura euskalduna ikasteko denbora eduki zuten. Hain zuzen ere, "aupa", "agur" edo "eskerrik asko" moduko hitzak erabiltzen zituzten maiz. Hamar egun hemen eman ondoren, haien bidaia ere bukatu egin zen. Dagoeneko, taldeko askok Amerikako Estatu Batuetara bueltatzeko asmoa dute.

MARBURGEN. ALEMANIA

Izei Barrasa eta Olivia Oramas

Alemaniano elkartrukea 2018ko abenduaren 16an hasi zen eta aste betez Marburgen, Alemanian egon ginen. Bilbotik Frankfurtera hegazkinez joan ginen, ostean trenan hartu genuen Marburgera joateko. DBH 4.mailako





11 ikasle eta 2 irakasle joan ginen Unamuno institututik. Beste talde bat aldiz, Burgdorf hirira joan zen.

Lehenengo egunean familiarekin egon ginen eta hurrengo egunean eskola bisitatu genuen klase batzuetan parte hartzeko. Eguna bukatzeko gynkana bat egin genuen. Baina dena ez ziren klaseak izan; astean zehar, leku asko bisitatu genituen. Frankfurtera eta Berlinera trenez joan ginen Mathematikum Museoa ikustera. Wilhelmsturm dorrea eta Elisabeth eliza ere bisitatu genituen.

Eskolan egon ginen denboran oso ondo pasatu genuen, klaseak dibertigarriak izan ziren. Egun batean bertan igarotako aurkezpen bat egin genuen denon artean. Azken eguna berriro familiarekin pasatu genuen eta bakoitzak jarduera desberdin bat egin zuen. Igandean Bilbora bueltatu ginen. Harrigarria iruditu zitzaizkigun institutuko ohitura eta dinamika ezberdinak: haien eskolan, parte hartzea notaren %50a zen.

Frankfurteko arkitektura asko gustatu zitzaigun ere. Esperientzia oso ona izan zen, kultura, tradizio eta ohitura berriak ezagutu genituelako. Haiek gure hirira apirilaren 2an etorriko dira.

LONGJUMEAU. FRANTZIA.
Victoria Santos eta Irene Rodríguez

Urtarrilaren 11an Frantziako elkartrukea hasi genuen. Unamunon itxaron eta gero, Hendaia zihuan autobusean sartu ginen. Bidaiaren hasiera DBH 4. mailako eta Batxilergo 1.mailako 22 ikasleok abesten eta

barrezka igaro genuen. Hendaia heldu bezain laster, tren batera igo eta 5 orduko bidaia hasi zen.

Mont-Parnasseko geltokian infernuko metroa hartu genuen baina bere mehatxuak gainditu genituen eta Longjumeau herrira heldu ginen.

Gure lagun frantsesekin elkartu ginen lehenengo aldiz eta harrera itzela eduki genuen! Gero, hurrengo bost egunetan egongo ginen etxeetara joan ginen hango familiekin. Asteburuan bolatokira, lasergune batera, Parisera eta festa batera eraman gintuzten.

Astean zehar, D'Orsay museora, Notre Dame ikustera eta Pariseko kaletatik ibiltzera eraman gintuzten. Pariseko egonaldia oso atsegina izan zen, frantsesa ikasteko



aukera izan genuelako eta lagun berriak egiteko aukera ere eduki genuelako. Gainera, Bilbotik atera ginenok geure arteko harremana ere estutu genuen. Harrigarritzko kultura aniztasuna dago Parisen, eta gainera janari berria dastatu genuen.

Urtarrilaren 17an pena sentitu genuen gure artean sortutako laguntasun ikaragarria zela eta. Zorionez, martxoaren 29an berriro izango ditugu gure artean. Itxaropenez itxaroten ditugu eta espero dugu gure institutuak eta beste elkarteek ere elkartruke berriak laster antolatzea, beste herriak eta kulturak ezagutzeko helburuarekin.

Gazteak eta Europako Parlamentua

European Youth Parliament (EYP) Gazteen Europar Parlamentua izeneko proiektuaren parte gara duela urtebetetik hona. Nor? Ba, gu! Ibai Armendariz, Jon Ander Gonzalez eta Markel Kerejeta, Botikazar BHIko 2HTko ikasleak. Baina zer da EYP?

Europa mailan eta 15 urtetik gorako gazteekin lan egiten duen gobernuz kanpoko erakundea da. Erakunde honek eztabaidatzeko gaitasuna, ingelesaren erabilera eta Europako txoko ezberdinetako gazteak elkar ezagutzea sustatzen du. Gazte hauek saioka elkartzen dira, esaterako, Estatuoko eskualde bakoitzean saio bat egoten da urtero eta ondoren Estatu osoko bat.

Saio bakoitza hiru ataletan banatzen da: Teambuilding (lanean hasi aurretik jendea ondo ezagutzeko jolas ezberdinak), Committee Work (emandako gai bati buruz taldeka eztabaidatzeko dinamikak) eta General Assembly (aurreko ataleko Committee Work-eko erabakiak taldeka aurkeztu eta gainerako taldeekin eztabaidatzeko momentua). Saio guztietan, aipatutako hiru atalak beti egin arren, saio motaren arabera atal bakoitzaren iraupena aldakorra izan daiteke.

Gure kasuan, 2018ko otsailean Bilbon ospatu zen eskualdeko saioan egon ginen bai Bilbo

baita Bizkaiako beste ikastetxe eta institutu batzuetako jendea ere. Hauetatik, bi zentro izan ziren aukeratuak, eta aukeratutako zentro bakoitzeko 3 ikasle, 6 guztira, eta horien artean gu. Beraz, Kordoban 2018ko apirilean egin zen saio nazionalera joan behar izan ginen. Han ere aukeratu gintuzten berriro ere beste herrialde batzuetan egiten diren saioetara joan ginatezen. Momentu hartatik aurrera EYPren parte gara eta Europa osoan egiten diren ekintzen berri emateaz gain haietara joateko aukera ere badaukagu.

Azaroan, adibidez, Frantzia egin zen saio nazionalera joateko gonbidatu gintuzten, eta aurten ere hemengo hainbat saiotan parte hartzen gabiltza, oraingoan antolatzaile bezala. Gainera, Botikazarreko lehenengo mailako ikasleak iaz guk egin genuen bidea jarraitzen ari dira, eta apirilean Zaragozara doaz saio hauetan parte hartzera. Han ondo pasa dezatela espero dugu, baita saio gehiagotara joan daitezela ere, geuk behintzat hori egiten jarraituko dugulako!





Ituren eta Zubietara

Urtarrilak 28 eta 29an, Ibarrekolandako 1.F batxilergoko ikasleak Ituren eta Zubietara joan ginen bertako inauteri ezagunak bizitzera. Astelehen goizean Ibarrekolandatik irteten ginen eta Zubietara heldu ginen, herri txikia izan arren oso berezia iruditu zitzaigun.

Motxilak aterpean utzi eta joaldunak janzen ikusi eta gero, Iturenera jaitsi ginen. Hor, bi herrietako joaldunak batu ziren. Herritar guztiak oso jantzi bereziekin mozorrotuta zeuden, mota guztietako gauza txoroak egiten, adibidez auto bat erditik mozten edo jendea-

ri zaborra botatzen. Zubietatik bueltan afari ederra eskaini ziguten eta afaldu ondoren tabernan abesten eta gitarra jotzen ibili ginen.

Hurrengo egunean Itureneko joaldunak Zubietara etorri ziren Zubietan ospatuko zen egun handira. Bertan aurreko eguneko zoramena errepikatu egin zen.

Nahiz eta eguraldi kaskarra izan eta goitik behera busti, bi herri hauetako inauteriak asko disfrutatu genituen.

Zoragarria izan zen esperientzia hau bizitzea, alde batetik euskal kulturaren ohitura zahar eta bitxienetako bat ezagutu genuelako eta beste aldetik klaseko lagunekin kriston momentuak bizi genituelako. Horrez gain talde moduan are gehiago batu ginen.

Ohiturak aldatzen!

Unamuno. Maialen Garzon eta Mainer Silva

Betidanik barneraturiko ohiturak aldatzen saiatzea ezinezkoa iruditu zaigu. Batez ere, eremu erdaldunetan bizi garenontzat hizkuntza ohitura hori euskara bihurtzea.

Txikitatik ezagutzen dugu elkar eta ez dugu inoiz euskaraz hitz egin. Euskarabenturak gure ideiak aldatu ditu. Orain posible ikusten dugu harreman batzuk euskaraz eraiki eta berreraikitzea. Espedizioan zehar erraza egin zitzaigun nahi horiek betetzea, giro euskalduna sortu genuelako, baina bukatzerakoan zailagoa iruditu zitzaigun euskaraz hitz egitea eremu erdaldun batean. Nahiz eta erreza ez izan gutxinaka-gutxinaka gure arteko harremanetan aldaketak izan ditugu eta euskaraz hitz egiten saiatzen gara beti. Orain, gaur eta hemen, dena da posible!

Bat bera dugu hizkera.

Unamuno. Maialen Garzon eta Mainer Silva

Ziur guztiok ados gaudela hainbeste leku desberdinetako jendea ezagutzea onena izan dela. Hilabete batean egindako harremanak oso bereziak eta estuak izatera heldu dira, eta horregatik inork ez du nahi bertan geratzea. Espedizioan zehar egindako ekintzez, hitzaldiz eta ibilbidetaz aparte, asko ikasi dugu guztion artean. Besteon euskalkiak ezagutzea eta hizkuntza ohiturak ezagutzea plazer handia izan da. Nahiz eta hitz desberdinez, bat bera dugu hizkera.

Denbora pasa ahala harremanetan jarraitu izan dugunez berriro denok elkarrekin zenbait topaketa egin ditugu, eta horrek poztasun handia sorrarazten digu momentu ahaztezinak gogora ekartzeko. Askok gainera Euskarabenturan egindako etaparen bat egiteko geratu gara aitzaki moduan Euskal Herria ezagutzen jarraitzeko, beti geure euskalkiak elkarbanatuz!

Brake dance euskarabenturan

Unamuno. Iker Escudero

Gazteizen geundela, afaldu eta gero, gauean hotz egiten zuenez, Bingen xerpak proposatu-takoa, egiten hasi ginen. Iñakik eta biok ez genuen dantza egiteko ideiarik ere. Hirurok oso biziak ginen eta bakoitzaren ezagupenaz baliatuz, dantza on bat egiten saiatu ginen. Hurrengo egunean, hurrengo herrira iristean, Agurainera, mugimendu berriak ikasten jarraitu genuen eta ezpedizioko jende guztiaren aurrean egin genuenean, musika topera jarri zuten. Brake dance txiki hori egiten hasi ginenean mundu osoa oihuka hasi zen. "Pinoa" egiterakoan, adrelalinez bete nuen gorputza gure izenak behin eta berriaz oihukatzen zeudenean.

Moikana modan!

Ibarrekolanda. Uxue Rodriguez

16. eguna heldu eta Agurain-Zerain etapa autobusez egin behar izan genuen eguraldiagatik. Aurreko egunean, ilea mozteko makina geneukanez, hainbat mutilek moikana egitera animatu ziren. Orduan, hurrengo egunean nik ere egitea pentsatu nuen baina egitear nengoela autobusa hartu behar izan genuen.

Bidean zalantzak edukitzen hasi nintzen, eta gainera Zerainera heldu ginenean, hainbeste moikana egin eta gero, makina apurtu egin zen. Momentu horretan moikana ez egitearen seinale moduko bat zela pentsatu nuen, baina ez zen aitzaki izan. Bizarra mozteko makina zeukan batek eskaini zidan unean ile "luzea" izatetik moikana izatera pasatu nintzen.

Euskarabentura

La Salle. Izaro Landaluce Menchaca

Euskarabenturan igarotako hilabetean, euskalki desberdin asko entzuten genituen eta euskalkirik erabiltzen ez genekienoi, edo pixka bat kostatzen zitzaigunoi zenbait aholku eman zizkiguten, euren artean, aditzen bat ez genekienean bere orde zintzikitikrin esatea. Azkenean espedizioko partaide gehienok hori erabiltzen genuen.

Euskarabenturatik itzulitakoan, han egindako lagunekin gaur egun whatsappetik ez ezik, haiekin elkartzeko naizenean erabiltzen dudana hizkuntza, euskara da.

Adostokia

Olatz Martin Legarra
eta Iñaki Saenz Sosa

Jende asko elkarbizi garen tokietan oso ohikoa da gure arteko desadostasunak sortzea. Eta normala ere bada, zoritxarrez desadostasun horiek liskar bihurtzea.

Gure ikastetxean, zurean bezala, holakoak gertatu ohi dira. Gazteok odolberoa dugula esaten digute eta ondorioz askotan aurrean daukagun arazoari gehiegi pentsatu gabe erantzuna ematen diogula ere esaten digute. Gelditu, arnasa hartu eta burua hoztea da gure proposamena.

Noizbait, ziur aski ikaskideren bat jo edo iraindu duzu. Esan beharrik ez dago hori ez dela arazoa konpontzeko erarik egokiena. Badakigu batzuetan zaila dela horrela ez jokatzea baina ahalegina egin behar dugu, liskarrak modu egokian konpon daitezen.

Hau da Adostokiaren helburu nagusia: arazoak solasaldiaren bitartez konpontzea. Egitasmo hau aurrera eramateko irakasleen laguntza behar dela argi dago, baina batez ere ikasleonek laguntza da beharrezkoena. Hitz eta berbak duen balioaz jabetu behar baikara.

Funtzionamendua oso erraza da: imajina ezazue zure lagun batekin edozein gauzagatik eztabaidatu duzuela eta hortaz ez dakizuela nola konpondu. Horretarako zabaldu du gure ikastetxeak espazio hau. Euskaraldian bezala bakoitzak rol bat izango du: belarriprest bata eta ahobizi bestea.



Belarriprest rola belarri baten argazki batekin adieraziko da. Honek esan nahi du, aurrean duzun pertsonak esaten duena entzun beharko duzula. Ahobiziak arrazoia eta iritzia eman dezake. Bi rol hauek elkarri hartuko diote txanda, biek beraien ikuspegitik iritzia eman dezaten.

Irakaslearen funtzio nagusia bitartekaritzalana egitea da, ikasleok garelako hemen garrantzitsuenak.

Ez dugu geure burua engainatuko, ez gara Adostokitik elkar besarkatuta aterako, baina hitz egiteko eta batez ere elkarri entzuteko denbora hartu dugu, eta ondorioz, gatazka gainditzeko aukerak handitu egin ditugu. Ez du inork lehia irabaziko baina, elkarbizitza hobetzean denok irabaziko dugu, ez al da egia?

Udaberriko moussea

Lehenengo pausua: *marrubi marinatuak*

Osagaiak

- Marrubiak: 2 unt.
- Ozpina: zirrasta bat
- Azukrea: koilarakada bat
- Albaka: 5 hosto
- Jengibre: zati txiki bat

Prestaketa

- 1- Moztu marrubiak zati txikietan (karratu txikiak).
- 2- Albaka eta jengibre oso zati txikietan moztu.
- 3- Gero ozpin zirrasta eta azukrezko koilarakada bota.
- 4- Ondo nahastu eta utzi azken momenturako.

Bigarren pausua: *fruitu lehorren teila*

Osagaiak

- Azukre-hautsa: 125 g
- Gurina: 63 g
- Laranja-zukua: 50 ml
- Indar gutxiko irina: 40 g
- Fruitu lehorrak: 63 g
- Fruitu lehorrak edo haziak erabili ditzakegu
- Amanda, intxaurrek, hurrak, sesamoa...

Prestaketa

- 1- Gurina urtu.
- 2- Ondoren, osagai guztiak gurin urtuarekin nahastu.
- 3- Nahasketa hozkailuan gorde (10 min).
- 4- Denbora pasa eta gero, erretilu bat eta laberako papera hartu.
- 5- Gero nahasketarekin bolatxoak egin eta zapaldu pixka bat era emateko. (Koilareekin ere egin ditzakegu).
- 6- Amaitzeko, labean sartu. (200°C / 6-7 min).

Hirugarren pausua: *jogurt moussea*

Osagaiak

- Esne-gaina: 250 ml
- Zuringoa: 1unt. (arrautza batena)
- Gelatina: 2 g (orri bat)
- Jogurta: 1 unt. (125 g)
- Azukre-hautsa: 50 g

Prestaketa

- 1- Gelatina orria ur hotzean sartu eta hidratatu.
- 2- Zuringoa bol batean harrotu.
- 3- Esne-gainaren kantitate txiki bat (20 ml) mikrouhinean berotu.
- 4- Esne-gaina berotu ondoren, gelatina sartu disolbatzeko.
- 5- Geratzen zaigun esne-gainarekin (230 ml) beste bol batean harrotu.
- 6- Esne-gaina erdi harrotuta daukagunean, jogurt-a gaineratu eta ondo nahastu poliki-poliki.
- 7- Ondoren, gelatina disolbatua nahastu (4.pausuan egin duguna) esne-gaina erdi harrotuarekin.
- 8 - Amaitzeko, zuringo harrotua nahastu aurrekoarekin.
- 9- Nahasketa osoa mahuka batean jarri eta hozkailuan gorde, hoztu arte.



Laugarren pausua: *muntaketa*

- 1- Platerean jogurt moussekin borobil bat egin.
- 2- Erdian marrubi marinatuak jarri.
- 3- Marrubi marinatuaren inguruan Jogurt moussekin dekoratu. Horrela utzi ahal dugu edo

dena estali jogurt moussekin.

- 4- Fruitu lehorren teilak zatitxoetan apurtu eta ingurunetik ipini.
- 5- Amaitzeko albaka hosto txikiak jarri.



Lanbide feminizatuetan mutilak plazara

Oraindik lan asko egin behar den arren, lau gazte hauek aurrerapauso handia eman dute, historikoki emakumei esleitu zaizkien lanbideak aukeratu eta hauek ikasteko erabakia hartu baitute. Historia aldatu nahi ote?

Jonak, Beñatek eta Xabierrek haur hezkuntzako goi mailako zikloa egitea erabaki dute eta Asierrek aldiz, mendekotasun egoeran dauden pertsoneri arretako erdi mailako zikloa ikastea erabaki du.

Gizartean oro har zaintzaren esparruak "feminizatua" jarraitzen duela iruditzen zaizue?

Jon: nire ustez azken boladan zaintzen esparrua orekatuago badago ere, oraindik genero ezberdintasuna nabaria da. Edozein esparrutan edonor gai izan beharko litzateke lan bat aurrera eramateko, generoa kontuan hartu gabe.

Beñat: nire ustez, oraindik ere asko dago aldatzeko. Pausuak emanez goaz, baina oraindik ere zaintzen esparrua feminizatua jarraitzen duela esan genezake. Sistema

kapitalista patriarkal honek, gizonezkoei esparru batzuk ezartzen dizkio emakumezkoek berriz beste eginkizun bat duten bitartean. Hobekuntzak eman arren, oraindik asko dago borrokatzeko.

Xabier: nik uste dut egia dela. Haurren zaintza baita zaintza orokorrean nahiko feminizatua dago. Dena dela, gaur egun oso normala da ere mutila izatea eta horrelako lanetan ibiltzea. Izan ere geroz eta mutil gehiago daude horrelako lan motak egiten.

Asier: gizarte matxista honetan oraindik asko dago egiteko, berdintasuna lortzeko eremu guztietan.

Zein ziklo aukeratu zenuten eta zergatik?

Jon: haur hezkuntza aukeratu nuen, hezkuntzaren mundua gustuko dudalako, eta hau-



rrren garapen afektibo, soziala, fisikoa eta mentala interesgarria iruditzen zait baita eta- pa horiek gidatzeko teknikak nahiz jarrerak.

Xabier: haur hezkuntzako zikloa aukeratu nuen, ez nuelako unibertsitatean lehen hezkuntza gradua ikasteko gutxiengo nota gaititu. Nire nahia haurren irakaskuntzan ibiltzea zenez, ziklo hau aukeratu nuen.

Asier: nik pertsonen arretako zikloa aukeratu nuen ditudan ikasketak osatzeko, eta pertsonekin lan egitea gustuko dudalako.

Zein ezberdintasun ikusten dituzue zuen zikloan, beste sektore edo zikloekin alderatuta? automozio, elektromekanika...

Beñat: zikloak erabat ezberdinak dira. Bai metodologia, bai klasean dagoen ingurua- ren aldetik. Printzipioz bat gizonentzako eta bestea emakumeentzako da. Bakoitzak nahi duena ikasi behar du, nik argi daukat gizar- teak ez didala ezarriko zer izango naizen.

Asier: neuk ezagututako eta komunikabideek azaldutako en arabera, ikasleriaren ehune- koa kontuan hartzen badugu, gizonentzako en emakumeentzako baina altuagoa da.

Zein aurreritzi apurtu behar izan dituzue zuen inguruan? (famiarekin, ikaskideekin..)

Jon: nik ez dut aurreritziarik aurkitu. Egia esan guztiz kontrakoa, beti entzun izan ditut nire erabakien alde egin duten iritziak. Bai fa-

milian baita lagunaren artean nire aukeretikiko babesa izan dut.

Beñat: bai, beti dago norbait kritikatzeko ez? nire kasuan, fabrikari lan egiteki haur hezkuntza ikastera igaro nintzen. Hala, jendeak galdera arraroak egin zizkidan, baina nire erabakia denez...

Xabier: ez, ez dut aurreritziarik ezta oztoporik izan.

Zein gomendio edo aholku emango zenieke DBHko mutil gazteei bere ikasketara edo etorkizuneko lanbideari dagokionez?

Jon: nire gomendioa da, beraien interesak kontutan har ditzatela eta motibatzen dituen ikasketak aurrera eramaten ausartzea, gizar- teak dituen aurreritziak alde batera utzita.

Beñat: gomendiorik onena, bakoitzak nahi duena ikastea litzateke, genero roletan eta aurreritziaren hauen etorkizuna baldintzatu ez dezaten.

Xabier: benetan ikasi nahi duena egin dezate- la, aurrera jarraitzeko bere etorkizunearan lan egin nahi duen arloan egon ahal izateko.

Asier: gozatu dezatela egiten dutena, prin- tzipioz haien buruarekin pozik egoteko, eta gero geroakoak.

Ikusten denez, denek iritziak bat datoz. Ge- neroaz haratago, bizitzaren esparru guztie- tan egotearen nahia.

Common Voice

Hizketaren ezagutza librea euskaraz? Denon arteon ahal da

Librezale taldea, orain dela 15 urte sortu zen informatikaren munduan euskara bultzatzeko asmoz, eta horretarako software librearen aldeko apustua egiten du. Software libreak beste garatzaileek kodea berrerabiltzea baimentzen du. Librezale, lantalde ireki bat da ez du egitura finkorik eta edonork hartu dezake parte.

2018ko urriaren 20an Marko Txopiteak Librezaleko posta-zerrendara mezu bat bidali zuen, proiektu berri bat proposatuz, ohi baino handiagoa izango zena. Mozilla fundazioak hizketaren ezagutzarako tresna libre bat garatzen ari zen, Txopitearen helburua tresna horrek euskara ulertzeko, baina jende askoren laguntzarekin.

Kaixo Marko, Google edo Facebook bezalako enpresek badute honelako teknologia, zergatik uste duzu Common Voice behar dugula?

Ahotsaren ezagutzan dauden teknologia ezagunenak enpresa handien eskuetan daude, eta hauen joera, teknologia pribatuak

erabiltzea eta ahotsaren prozesamendua beraien enpresetan egitea da.

Teknologia hauen zabalpena egitekotan (gidatzen duzun bitartean ahotsez kotxeari informazioa eskatu, telefonoari mezuak ahotsez diktatu...), zerbitzu horiek ematen dituzten enpresak ia edozein garapen egiteko ezinbestekoak bihurtuko dira. Eta hauen eskuetatik are datu pribatu gehiago pasako liratezke, besteak beste, gure inguruan dauden gailuak entzuten eta enpresa zentraletara bidaliko baitituzte.

Mozillako ikerketa taldea, offline egoeran dabilen motor bat sortzen ari da, esparru honetan segurtasuna eta pribatutasuna asko hobetuko dituena. Libreza izango da eta gailuetan bertan exekutatu ahal izango da, inongo enpresari daturik bidali gabe.

Pribatutasuna haintzat hartzen du, eta euskara ulertu dezake.

Hala da, sistema honek, euskara ulertu ahal izateko euskaraz grabatutako ahotsen datu-sorta handi bat sortu behar du. Motorrak hor-tik ikasiko baitu.

Erronka batzuk pasatu dituzue euskara hizkuntza proiektuan onartu zezaten, lehena testuak lortzea.


Bost mila esaldi lortu behar ziren ostean grabatuak izateko. Euskara batuan, hiztegi anitzarekin, eta jabari publikoan edo CC0 lizentziarekin. Euskal literaturako klasiko asko dago jabari publikoan, baina ez ziren euskara batuan idatzi.

Argia aldizkariak behar genituen esaldiak hemerrotekatik hartzera baimendu gintuen eta CC0 lizentziarekin zabaltzera. Hala egin genuen, eta Librezaleko kideok prestatutako 2.000 esaldirekin eta Argiaren beste 4.000rekin lanean hasteko materiala bildu genuen.

Mozillak materialaren kalitatea egiaztatu zuen, eta hizkuntza gutxituen artean lehentari-koak izan gara Common Voice onartuak izaten. Adibidez, gaztelania baino lehenago hasi gara grabaketa fasean.

Zertan datza fase hori?

Orain proiektuaren urrats garrantzitsuena hasi dugu eta ahalik eta euskaldun gehiagoren laguntza behar dugu. Gure helburua 10.000 ordu grabatzea eta balioztatzea da.



Mozillaren motorrak euskara ahalik eta modu egokienean ezagutzeko, genero, adin eta azentu desberdinak dituzten pertsonen laguntza behar dugu.

Komunikazio kanpaina bat abiatu dugu eta euskal hiztun guztiei proiektu polit eta berri-tzaile honetan laguntzeko gonbidapena luzatzen ari gara. Animatu daitezela Elgerako irakurleak ere!

Zer egin dezake lagundu nahi duenak?

Benetan simplea da ekimen honetan laguntzea! Mikrofonodun gailu batekin (ordena-gailua, mugikorra) webgune hau bisitatu eta "Hitz egin" dioen botoia sakatu honako link honetan: voice.mozilla.org/eu

Grabaketak leku isil batean egitea eskatzen dugu eta grabaketa berriak sortzeaz gain, daudenak balioztatzen laguntzea ere. 10.000 ordu lortu behar ditugu bide honetatik. De-non laguntzarekin helburura heltzea espero dugu. Indartu dezagun euskara teknologia libreen bidez!

Pentsa ezazu kanpaina

Pentsa Ezazu gizarte honen eta batez ere gazteek drogekiko duten mendekotasuna saihesteko sortutako kanpaina da.

Ikastetxean aste oso batean zehar proiektu batean lanean ibili ginen. Astelehenean, Islandiako gai honi buruzko aurrerapena ikusi eta aztertu genuen. Duela 70 urte, herrialde honen gazteria Europako tabako eta alkohol kontsumitzaile nagusienetako bat zen; gaur egun, berriz, Europako hiri askok Islandiako drogen kontsumoaren prebentzioari buruzko ereduari jarraitzen diote. Zoritxarrez, Espainian arazo kezagarri honek begi-bistakoa izaten jarraitzen du eta hori guutzitzea izan da kanpaina honen helburua. Hurrengo egunetan zehar, leku desberdinetako adituak etorri ziren, EHU-tik esaterako, eta honetaz hobeto informatzeko hitzaldiak eman zizkiguten.

Substantziarik gabeko mendekotasunaz ere hitz egin ziguten, jokia eta haren publizitatea. Hauek substantziadun adikzioen parekoak dira, kaltean ludopatia eragin dezaketelako. Gaur egun, gazte jokoaren mende dago, eta oso zaila da behin honekin hasita utzi ahal izatea. Familia asko bere hondamendi ekonomikora eraman du, mendekotasun honen erruz dirua xahutzeari utzi ezinda. Jokoari eta han xahututako diruari buruzko datuak aztertu eta gero, arazoaren larritasunaz ohartu ginen eta taldeka datu hauek biltzen zituen dokumentua egin genuen. Baina hori ez zen nahikoa, arazo horri konponbide bat ema-

ten saiatu nahi genuen. Beraz, Change.org izeneko webgunean sartu ginen. Han, jendeak behar dituen eskaerak egiten ditu eta pertsonen sinadurekin eta zabalpenarekin bakoitzak duen helburua aurrera atera daiteke. Gure helburua online jokoari buruzko publizitatearen legedia aldatzea zen, online jokia murrizteko.

Ikastetxean landutakoa kaleratu nahi genuenez eta Balioak Martxan saria (ingurune soziala hobetzeko inizatibak dituzten gazteei emandako saria) irabazi genuenez, urtarrilaren 19an, San Pedro plazan izan ginen. DBH 3. mailako ikasgela bakoitzak ordu batez egon zen, goizeko hamarretatik eguerdiko ordu batera arte. Karpa handi bat jarri genuen postu ezberdinez osatua, zegoen jendea kontzientziazten saiatzeko. Postu batean, betaurreko batzuk jarri genituen, hauek mozkor zeundela simulatzen zuten; beste batean, Balioak Martxan saria eta Pentsa Ezazu kanpaina zertan datzan azaldu zen. Beste multzo batean, jendeari esaldi batzuk irakurtzen zitzaizkion, drogen permisibitatea erakusteko eta alkoholak gizonengan eta emakumeengan dituen efektuak erakusteko; azken multzoan, Change.org-en egindakoa eta jokoaren publizitatea gutxitzeko jasotako laguntza erakutsi genuen.



Euskara



DBH 4A

Amak galdetua da
zergatik dakiten
ume denak euskaraz
ta_ez den erabiltzen?
erantzuten diogu
arrazoia zeren
denok dakigu baina
ez dugu egiten

Zenbat ta handiago
are gutxiago
euskara martxa hontan
hiltzorian dago
nola guk badakigun
egiten luzaro
hobe_egiten badugu
euskaraz gehiago

DBH 4B

Eskolan zein lanean
edota kalean
berdin jolasten edo
bokata jatean
txantxak eta barreak
euskara_ikasteen
ondo pasa ezazu
euskara egitean

Munduko_hizkuntzetatik
onena beharbada
misterio bateko
partaideak gara
lagun bat ikustean
eman besarkada
betiko izango da
guretzat euskara

DBH 4C

Da Europa osoko
hizkuntza zaharrena
desagertuko balitz
ai zelako pena
euskara ta erdera
zelako dilema
hemen hitz egiten den
hizkuntza onena

Abesti eta bertso
ugari entzuna
horixe da aspaldi
maitatzen duguna
erdaraz egin eta
senti erruduna
euskara egiten badut
naiz ni euskalduna

MIKROIPUINAK

2019



Egilea: Ane Lopez Mendizabal